

## PRENTSA-OHARRA

# Maskulinitateen eraikuntzari eta berdintasunaren aldeko borrokan gizonek jokatzeko duten paperari helduko die aste honetan Udalak jardunaldi batzuetan

Erakusketa bat eta bi hitzaldi bilduko dira *Maskulinitateak* izenburupean, non gogoeta egingo baita genero-rolen eta -aginduen esleipenari buruz

Iruñeko Udalak *Maskulinitateak* ardatz izango dituen jardunaldi batzuk antolatu ditu, genero-rolen eta -aginduen esleipenari buruz gogoeta egiteko. Aste honetan zehar, erakusketa bat, mahai-inguru bat eta hitzaldi bat egingo dira honako gaiak hartzeko: maskulinitateen eraikuntza, berdintasunaren aldeko borrokan gizonek jokatzeko duten papera, aldatzeko oztopoak eta erronka berriak, besteak beste. Berdintasun eta LGBTBIko zinegotzi ordezkari Laura Berrok azaldu duenez, programa antolatu da sinetsita berdintasuna justizia-balio bat ez ezik herritar guztien ongizaterako balio bat dela –gizonak barne–, eta horregatik berriazko gonbita egin die pentsatu eta eztabaidatu dezaten, eta berdintasun errearen alde aktibatu daitezten. Prentsaurrekoan izan dira, baita ere, Herritarren Partaidetzako eta Gizartea Ahalduntzeko eta Berdintasun eta LGBTBIko Alorreko zuzendari Ana Gil eta Berdintasuneko teknikari Zaloe Basabe.

Ekimen honen bidez, Berdintasun eta LGBTBIko Alorrak gogoeta piztu eta sustatu nahi du maskulinitate hegemonikoa delakoak oinarri dituen balioen inguruan, eta bultzatu nahi ditu maskulinitateen erreferente berriak, zeinak ezinbesteko eragileak baitira gizon eta emakumeen arteko berdintasun erreala lortzeko, zalantzan jartzen baitituzte sistema patriarkalak emandako pribilegioak. Iruñeko III. Berdintasun Planak berdintasunaren aldeko borrokan gizonen inplikazioa azpimarratzeko beharra jasotzen du, eta parte-hartze horrek barne hartu behar ditu, nahitaez, balio aldaketa, baliabide eta zereginen banaketa orekatua, eta emakumeekiko harremanen aldaketa, bizitzaren arlo guzti-guztietan. Horrek ere berekin dakar identifikatzea halako egoerak non boterea erabiltzen baita edota menderatzea gertatzen baita, eta horiei uko egitea, eta antzeman daitezkeen beste batzuk gaitzestea.

### **Erakusketa aste osoan zehar; mahai-ingurua, asteartean; eta hitzaldia, ostegunean**

Jardunaldietako lehen jardura aste osoan zehar ikusgai egongo den erakusketa bat izango da, Descalzos kaleko 72an dagoen IPESen Dokumentazio Zentroan, eta Piper Txuriak maskulinitate-taldeak egindako argazkiak bilduko ditu.

1. orrialdea, (e)tik 3



Zentro horrek, gainera, jardunaldiek iraun bitartean, herritarren eskura jarriko du maskulinitateei buruzko material bibliografikoaren sorta bat, nahi dutenek gaien sakon dezaten. Narratiba-liburuak, saiakerak, ikerketak, komikiak, ipuinak, eta abar egongo dira. Bisitatzeko ordutegia honako hau izango da: astelehenetik ostiralera, goizez, 10:00etatik 14:00etara; eta astearte eta ostegun arratsaldetan, 18:00etatik 20:00etara.

Apirilaren 17an, asteartearekin, mahai-ingurua egingo da *Zertarako balio dute Gizonen Taldeek?* izenburupean. Bertan ibilbide ezberdinak dituzten estatuko hainbat tokitako gizon-taldeek azalduko dute elkartegintzaren eta berdintasunaren aldeko aktibismoaren arloan egindako bidea, eta gogoeta egingo dute oztopo eta erronka berrien inguruan. Honako hauek arituko dira hizlari: Roberto Sanz (AIGHE, Madril), Mikel Otxotorena (ON:GIZ, Gasteiz) eta Montxo Gota Vega (ERAIKIZ, Nafarroa). Mahai-ingurua Igogailuen Eraikinean egingo da, Descalzos kaleko 56ko 2. solairuan, 18:30ean.

Toki eta ordu horietan bertan, baina ostegunean (apirilak 19), *Skolae* hezkidetza programako aholkulari eta irakasle Miguel Ángel Arconadak hitzaldia emango du *Maskulinitate berriak (?) eta feminismoak* izenburupean. Maskulinitateen eraikuntzarekin lotutako gaiak jorratuko ditu, baita berdintasunaren aldeko borrokan gizonak jokatzen duten papera ere, bereziki garai hauetan, non feminismoa gizartean indarberrituta agertu baita eta gizartea eraldatzeko ezinbesteko mugimendu gisa.

### **Pribilegioak, mikromatxismoak eta alternatibak maskulinitatearen eredu tradizionalari**

Jardunaldion aurretik, Ahaldundia eta Partaidetzako Udal Eskolan (APUE) *Maskulinitatearen berdintasunerantz* izeneko ikastaro bat hasi egin da. Jabi Arakama Urriaga eta Montxo Gota Vega dira ikastaroko arduradunak, eta generoaren eta maskulinitate berrien inguruan gogoeta egiteko prest dauden gizonak bildu ditu. Pribilegioak identifikatu eta zalantzan jarri, mikromatxismoen azterketa eta alternatibak maskulinitatearen eredu tradizionalari. Horra landuko dituzten gaiak.

Jardunaldi hauek III. Berdintasun Planean jasotako helburuetako bati erantzuna ematen diote – zehazki honi: genero-rolen eta -aginduen esleipenari buruzko gogoeta sustatzea, eredu berriak eraikitzea ahalbidetzen duten baliabideak emanez–, eta urrats bat gehiago dira harreman eta gizarte berdinezaleak erdiesteko bidean balio-aldaketetan sakondu eta horiei bide emateko Berdintasun eta LGTBiko Alorrak duen konpromisoan. Konpromiso horren adibide dira, besteak beste, autonomia- eta erantzunkidetasun-lantegiak, eta APUEk proposatutako ikastaroak. Halaber, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioan eta deuseztatzean gizonak era aktiboago batean inplikatzeko beharra Iruñeko Udalak sustatutako kanpainetan ageri da, bai sanferminetakoan bai auzoetako festetakoetan.

### ***MASKULINITATEAK JARDUNALDIAK***

---

- **Piper Txuriak maskulinitate-taldearen argazki-erakusketa**



- Apirilaren 20ra arte. IPESen Dokumentazio Zentroa (Descalzos kalea, 72). Astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara; eta astearte eta ostegunetan, 18:00etatik 20:00etara.
- **Mahai-ingurua: Zertarako balio dute Gizonen Taldeek?**
- Roberto Sanz (AIGHE, Madril), Mikel Otxotorena (ON:GIZ, Gasteiz) eta Montxo Gota Vega (ERAIKIZ, Nafarroa)
- Apirilak 17, astearte. Igogailuen Eraikina, Descalzos kaleko 56ko 2. solairua. 18:30
- **Hitzaldia: Maskulinitate berriak (?) eta feminismoak**
- Miguel Ángel Arconada, irakaslea eta SKOLAE hezkidetza programako aholkularia
- Apirilak 19, osteguna. Igogailuen Eraikina, Descalzos kaleko 56ko 2. solairua. 18:30

Iruñean, 2018ko apirilaren 16an 2018